

txintxarri



Sinbolismoarekin eta esanahiarekin jolasean

Euskal Imauteriek Lasarte-Oria koloreztatuko dute datorren hilaren 3an / 6-9

TXINTXARRI

Puntako atleten krosa

LOKEko lasterkariak ere arituko dira hipodromoan egingo den 63. Nazioarteko Krosean / 12

Alokabideri hamasei etxe utziko dizkio Lasarte-Oriako Udalak, herritarren eskura jar ditzan / 2

35. areto futbol txapelketari hasiera emango diote larunbatean. Bederatzi talde lehiatuko dira / 10



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Gure betaurreko guztiak
2018 bildumakoak dira

**MERKE
ALDIA**

Gama altuko
2mō
betaurreko
progresibo
179€

aurretiko prezioa: 199€

www.multioplicasgipuzkoa.com



Arrasate • Beasain • Bergara • Donostia
Eibar • Errenteria • Irun • Ordizia • Tolosa

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

**Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA**

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



Udal gobernu taldea, astearte goizean egindako udalbatzarrean. TXINTXARRI

Udalak Alokabideri 16 etxebizitza utziko dizkio

Astearte goizean bildu zen udal gobernu taldea ezohiko udalbatzarrean, eta beste zenbait punturen artean, Alokabide eta udalaren arteko hitzarmena, Udako Txokoaren tasa berriaren ezarpena eta 2017. urteko Taula Organikoa eta lanpostuen zerrenda aldatzea adostu dituzte

Maddi Noriega

Alokabide eta udalaren arteko hitzarmen proposamenak zabaldu du astearteko ezohiko udalbatzarra; Lasarte-Oriako Udalak itun bat egingo du Alokabiderek (Eusko Jaurlaritzaren menpeko sozietate publikoa). Udal alderdi guztiek aldeko bozka eman diote proposamenari, eta, honenbestez,

hamasei pisu utziko dizkio udalak erakunde publikoari, herritarren eskura jar ditzan.

Urtarrileko ohiko udalbatzarra igarota, ezohiko batzarrera eraman dituzte zenbait gai. 09:00etan eman zioten hasiera plenoari. Ohiko udalbatzarrean baino gai gehiago izan dituzte eztabaidarako aldi honetan;

guztira bost puntu eztabaidatu dituzte.

Alokairu sozialak sustatzearen alde agertu dira alderdi guztiak. Halere, boto azalpena egin du EH Bilduko Pablo Barriok, eta proposamenaren puntu batean kritikoa agertu da. Etxebizitza horiek eskuratu ahal izateko baldintzetako bat da gutxienez

hiru urtez Lasarte-Orian errolatua egotea. Baldintza hori "populismoa" dela uste du Barriok.

EH Bilduren azalpenarekin batera, Jon Antxordoki EAJko kideak ere hartu du hitza; azaldu du aurreko lege-gintzaldian gaiarekiko adostasun berbera mantentzen duela, baina itxaronaldia luzea izan dela.

Udako Txokoak

Udako Txokoaren tasa berriaren ezarpena izan da eztabaidatutako bigarren gaia; aurtengo udaberriaren lizitazioa aterako da egitasmoa. Guztiak ados agertu dira puntuarekin, eta aldeko hamahiru bozkarekin proposamena onartu dute. Hala ere, boto ondorengo azalpena eman du Barriok. Orain arte, Ttakun Kultur

LASARTE-ORIAN GUTXIENEZ HIRU URTEZ ERROLDATUAK DAUDENAK SARTUKO DIRA ALOKABIDEN

UDAKO TXOKOEN TASA BERRIEN EZARPENA AHO BATEZ ONARTU DU UDALEKO GOBERNU TALDEAK

Elkartarekin etekin asmorik gabeko zerbitzu bat izan dela azaldu du, ekonomia sozialari jarraiki egin dira urte luzeetan Udako Txokoak. Aldaketarekin, berriz, etekina bilatu nahi dela uste du: "Zerbitzua pribatizatu nahi da".

Hirugarren eta laugarren puntu gisa, udaleko bi lanposturen hizkuntza eskakizuna izan dute hizpide. Zerbitzuetako administrazio laguntzailea eta diruzaina dira lanpostu horiek, eta horietan jarduteko hizkuntza eskakizunak aurkeztu dituzte; administrari laguntzailearentzako (aldeko hamabi botorekin, eta aurkako bakarrarekin) bigarren mailako hizkuntza profila adostu da, eta diruzainarentzako (bederatzi aldeko botorekin, aurkako hirurekin eta abstentzio bakarrarekin), aldiz, hirugarren profila.

Batzarrari amaiera emateko, 2017. urteko taula organikoa eta lanpostuen zerrenda aldatzea bozkatu dute, eta horrek ere aurrera egin du aldeko bederatzi botorekin (PSE eta ADLOP).

Udalak bultzatutako herritarren parte hartze prozesua "burla" bat dela salatzen du PPK

312 lasarteoriarrek eman zuten bozka udalaren parte hartze prozesuan. Egitasmo hori "porrota" izan dela azaldu du Alejandro Saenz alderdikideak

Txintxarri

Legegintzaldia hasi zenetik, bi aldiz egin du Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartze prozesua. Hitz gogorrak egin ditu Alejandro Saenz Alderdi Popularrak boze-

ramaileak prozesu horren aurka; egitasmo hori "porrota" izan dela leporatu dio udalari.

312 herritarrek parte hartu dute prozesu horretan, eta Saenzen ustetan, kopuru hori "eskasa" da. Baina ez zaio

guztiz deigarria egin: "Herri-tarren lehenasunetatik kanpo geratzen diren proiektu sozialistak dira".

Jesus Zaballos alkatearen aurka egin du, eta "arduragabekeria" egotzi dio. Saenzen

esanetan, herritarrei hitzemandako proiektuak epez kanpo betetzen dituzte. Horren adibide gisa jarri du udalaren gardentasun ataria eta 2018. urterako aurrekontuak.

Herritarrek udalera gerturatu

Haatik, Lasarte-Oriako Udalak beti defendatu du parte hartzeko prozesua, herritarrek udaleko kudeaketara gerturatzen diren tresna gisa. Modu horretan, bozketa bidez herritarrek aurrekontuaren zati bat zertan gastatuko den

erabakitzeak aukera dute. Hain zuzen, prozesu honetan aurrekoan baino jende gehiagok parte hartu du.

Edonola ere, udalak "hainbat arazo" antzeman ditu prozesu horretan, eta adierazi du horiek zuzentzeko neurriak hartuko dituela. Horrela, udal gobernuak aurrekontu partizipatiboaren araudi bat landuko du, prozesu horiek "benetan" erantzun diezaioten herritar guztiei irekitako egitasmo bati.

Kale garbiketa eta asfaltatzea, lehiaketara

Lasarte-Oriako kale garbiketa eta errepideak hobetzeko asmoz, udalak bi lizitazio jarri ditu martxan. Asfaltatze lanak bi urtean egin beharko dira. Kale garbiketa zerbitzuari dagokionez, langile eta makineria kopurua handitu eta eremu berriak gehitu dira

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak kale garbiketa zerbitzuaren eta kaleak asfaltatzeko lanen lizitazioa martxan jarri du. Jesus Zaballos alkateak, Jose Mari Urdanpilleta Zerbitzu publikoak saileko arduradunak eta Agustin Valdivia Hirigintza saileko buruak eman dute lehiaketan berri.

Kale garbiketa zerbitzuko aurreko kontratua 1999an sinatu zuten, eta gaur egunera arte luzatu da. Jesus Zaballos alkatearen arabera, zerbitzua hobetu eta eguneratu asmoz egingo da lizitazio berria.

Eta, halaber, aurrekontu parte-hartzailetan Lasarte-Oriako herritarrek gehien bozkatutako bigarren proposamenari irtenbidea eman zaio.

Baldintza-agiri berri hauen bitartez, herriko kale eta plazen garbitasuna "nabarmen" hobetuko dela adierazi du alkateak.

Agerraldian azaldu duenez, ohiko kale garbiketa lanez gain, baldintza-agirietan nahitaezko garbiketak ezarri dira. Era berean, langile kopurua, eta makineria handitu eta Lasarte-Oriako sortu diren eremu berriak gehitu dira.



2016 urtean, besteak beste, Sasoeta ibilbidea asfaltatu zuten. TXINTXARRI

Hori guztia ahalbideratzeko esfortzu ekonomiko handia egingo da: 1.107.294 eurokoa da lizitazioa.

Kontratua sei urterako izango da, eta bi urteko luzapenak egin ahal dira. Udaleko ordezkariak jakitera eman dutenez, otsailaren 9ra arte dute enpresek haien proposamenak aurkezteko epea. "Dagoeneko bost enpresa aurkeztu dira," esan du alkateak.

Asfaltatzea

Honez gain, udalak hiru urteko asfaltatze plangintzarekin aurrera egingo du, eta, horretarako, bi urterako lizitazioa egingo du.

Baldintza-agirietan asfaltatu behar diren eremuak zehazten

dira. Gainera, udal ordezkariak jakitera eman dutenez, enpresek horiez gain asfaltatu ahal diren metro karratuen proposamena ere egin beharko diote udalari.

Era berean, herritarrei eragozpenak eta zirkulazio arazoak ekiditeko plan bat ere eskatuko zaie.

Lanek 1.054.899 euroko aurrekontua dute, eta uda ostean hastea espero du udalak, baita enpresak lan guztiak jarraian egitea ere.

Agerraldian azpimarratu dutenez, lan horiei esker, herriko errepide guztien asfaltatua berritua egongo litzateke. Oria eta zirkuitu ibilbideko industrialdeako eremua faltako litzateke bakarrik.

NEURE KABUZ



GORKA LASA

Alerta laranja

Azkenaldian askotan jartzen gaituzten egoera da alerta laranja. Egoera honek arreta berezia jartzea eskatzen du, neurri gabeko zerbituen aurrean adi eta erne behar dugun adierazgarri.

Maiz entzuten ditugun hitzak dira, eta maiztasun horrek gehiegizko konfiantzari bide emanez, tamalez, ekidin daitezkeen istripuak eta ezbeharrak gertatzen dira askotan. Axolagabeki jokatzeko baitugu zentzu guztien arreta berezia eskatzen duen egoeraren aurrean.

Meteorologiak dihardutenean aipatzen dute gehienetan alerta laranja, non haizea indartsu ibiliko den, eurite handiak uholde arriskua ekarriko duen, itsasoan olatu erraldoiak altxatuko diren edota elur maila itsas mailaraino jaitsiko den.

Baina niri beste hamaika motibok pizten didate argi laranja nire baitan, eta eguraldiaren aldarte bortitzak adina edo gehiago kezkatzen naute; lan egoera eta etorkizunari begira, sindikatuak sinatuko dituzten lan-hitzarmenek, adibidez. Baita, herriaren nahiari eta hitzari muzin eginez, politikariek adostuko dituzten itunek ere; hala nola, azpiegitura askoren nondik norakoak interes politiko soiletan oinarrituz, beroien esku geratzen diren erraustegia eta zaborren kudeaketa, Donostiako metroa, abiadura handiko trenak, presoek gerturatzea, erabakitze eskubidea, etabar.

Ildo beretik jarraituz, gure seme-alaben etorkizuna ere hezkuntza sistema / metodologia eskas baten menpe dagoela esango nuke. Zer esanik ez, kontrolik gabeko sare sozialen erabilera, nerabe eta gaztetxoek galbidea. Hizkuntza normalkuntza sustatu beharra...

Gai hauek guztiak eta gehiagok merezi dute alerta laranja egoera, are gehiago, baita gorria ere, baina inork gutxik adierazten digu beraien larritasunaz.

Herriko sei elkarteak jasoko dute udalaren diru laguntza

8.376 euro banatu ditu Lasarte-Oriako Udalak herriko bost elkarteren artean: Zabaleta Auzolan, Virgen de Guadalupe, Danok Kide, Lan eta lan eta Sasoeta Sasoian dira lagundutako elkarteak.

2017. urtean aurrera eramandako ekintzak babesteko, kultur elkarte horiek aurkeztu dira diru laguntzen deialdira, eta oinarrien arabera balorazioa egin ostean, diru laguntzak jaso dituzte.

Zabaleta auzo elkarteak 2.812 euro jasoko ditu; Virgen de Guadalupek, 2.313 euro; Danok Kidek, 2.127 euro; Lan eta lan elkarteak, 775 euro; eta Sasoeta Sasoian elkarteak, berriz, 349 euro. Horiakin batera, seigarren elkarte bat ere aurkeztu zen deialdira, baina gastuak baino diru sarrera handiagoak aurkezteagatik ez dute laguntzarik jaso.

Buruzpe guraso elkarteak ere diruz lagunduko du udalak. Eskola orduz kanpoko jarduerak babesteko bideratuko da laguntza; 3.785 euro jasoko dituzte 2017. urteko programagatik.

MAiTE
ESTETIKA ARETOA
Hau da fotodepilazioa egiteko unerik egokiena
Prezio berriak fotodepilazioan, zatoz galdetzeraz!
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

Kenia
IRTEERA MAIATZEAN
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.
T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

San Sebastian egun aurreko ospakizuna

Ikasleak, danbor artean

San Sebastian egunera itxaron gabe, bezperan astindu dituzte danborrak herriko ikastetxeetako ikasle eta irakasleek. Asteotan entseatzen ibili dira, gogotsu, eta joan den ostiralean erakutsi zuten euren trebezia. Eguraldi txarra tarteko, batzuek ezin izan zuten aurreikusitako tokietan jo, baina horrek ez zizkien ahoetatik irribarreak kendu.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Haur Hezkuntzakoak izan ziren jotzen lehenengoak. Hiruak pasatxo hasi ziren, euren geletan. Musika topera jarri, danborrak eta txanoak soinean jantzi, eta ospakizun honetako doinu ezagunak jotzen hasi ziren: Donostiako Marbxa, Realaren ereserkia, Iriyarena, Tatiago baita Lasarte-Oriako ereserkia ere. Doinu bertsuak entzun ahal izan zituzten herritarrek emanaldietan.

Eguraldi kaskarra tarteko, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko LHko neska-mutilek gimnasioan eskaini zuten emanaldia. Ikasle kopurua handia zenez, toki gehiago edukitze aldera, gurasoek kanpotik jarraitu behar izan zuten danborrada.

Garaikoetxea-Landaberri ikastetxeetako, aldiz, patioan jo zuten, aterpea zeukatela baliatuta. Guraso eta lagunek ez zuten gaztetxoek eskainitako danbor erakustaldia galdu nahi izan. Sakelekoarekin grabatu zuen batek baino gehiagok.

Zubieta ingurutik ere iritsi ziren danbor hotsak herrira. Landaberri LHko ikasleak anfiteatroan aritu ziren, urtero legez. Gainontzeko ikastetxeetan bezala, Sarriegiren doinuak jo zituzten, ikus-entzuleen txalo artean.



Lepo bete dute anfiteatroa Landaberri LHko neska-mutilek, sukaldari jantziak soinean. TXINTXARRI



Sasoeta-Zumaburu LHko haur eta irakasleak, gimnasioan. TXINTXARRI



Landaberri-Garaikoetxeako zenbait ikasle, Maria Doloresen zuzendaritzapean danborrak jotzen. TXINTXARRI



Primeran pasa dute Sasoeta-Zumaburu HHko haurrek. TXINTXARRI

'Inahaldunak', gazte eta familientzat

Ekintza berezia antolatu du Ttakun Kultur Elkarteak, haur, gazte eta familiek inauterietan aisiaz euskaraz goza dezaten

Txintxarri

Amaraun Klubak, Gazte Klubak eta Kuadrillategik *Inahaldunak* egitasmoa antolatu dute. Azken urteotan Ttakun Kultur Elkarteak aurrera eramaten dituen haur eta gazteentzako programetako erabiltzaileekin hausnarketa egin ondoren sortu dute ekintza. *Inahaldunak* aisialdi euskalduneara eta haur eta gazteen ahalduz oinarritzen dira, Ttakunen egitasmoen helburuei jarraikiz. Egitasmoa bi egunetan eramango da aurrera.

Gazteak

Otsailaren 9an, ostiral mehean, Gazte Klubeko eta Kuadrillategiko lagunak Villa Mirentxun bilduko dira. Arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara, gazteen gozamenarako hainbat ekintza egingo dira.

Mozorro eta ikuskizun lehiaketa izango da lehenik. Parte hartzaileek antzerkia, dantza edo bertsoak abestuko dituzte, mozzorroturik.

Ostean, dantza egiteko musika jarriko da. Dantzaldiak irauten duen bitartean, partaideek *photocall* berezi batean argazkia ateratzeko aukera izango dute, baita mokadutxo bat jatekoa ere.

Familiak protagonista

Bestalde, otsailaren 12an, astelehenean, Amaraun Klubeko haur eta gurasoen txanda izango da. 2 eta 8 urte bitarteko haurren eta familien arteko harremana sustatzeko eguna izango da. Villa Mirentxun jai giroan elkarrekin aritzeko aukera izango dute.

17:00etan, jaiari hasiera emateko, mozzorro lehiaketa egingo dute. Ondoren, familiek *photocall*-ean argazkiak ateratzeko aukera izango dute. Oroigarri moduan, TXINTXARRI-ko webgunetik hartu ahalko dira irudian.

Jarraian, *Plaza Irrintzika* ikuskizunaz gozatu ahalko da. Euskarazko abestiak ardatz

harturik, dantzaren, musikaren eta kantuaren bidez gorputza eta ahotsa piztuko dituzte bertaratukoek. Saioari bukaera eder bat emateko, irrintzia botatzen ikasi eta irrintzika bukatuko dute denek. Bukatzeko, sorpresa gozo bat jasoko dute bertaratuko guztiek.

Lehiaketak

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, lehiaketan parte hartzeko familiak edo taldeak izena eman behar da. Honez gain, parte hartzaileek kontuan izan behar dituzte honako puntu hauek: gazteen kasuan, taldeak gehienez bost pertsona izango ditu eta ikuskizunetako musika behar izanez gero, euskaraz izan behar ko du; familien kasuan, familia irizpide bezela belanaldi desberdinen arteko kideak egotea hartuko da.

Lehiaketetako epaimahaiak originaltasuna eta sormena izango ditu kontuan. Baina herriko inauterietako gaia lantzeak, lanbideak, puntuak gehituko dituela ohartarazi dute antolatzaileek.

Gazteen lehiaketan bi sari banatuko dira: mozzorro onenari eta ikuskizun onenari. Epaimahaiak aukeratutako taldeek gazteei zuzendutako ikuskizun baterako sarrerak irabaziko dituzte, baita herriko merkataritza-establezimendu batean lagunen artean menua dastatzeko aukera ere.

Familien lehiaketan, berriz, sarituek herriko komertzio batean argazki saio berezi bat egiteko aukera izango dute. Izen emateko edota informazio gehiago eskuratzeko, Ttakuneko bulegora 943 371 448 telefonora edota *aisia@ttakun.eus* helbide elektronikora jo daiteke. Arduradunek haur, gazte eta familiak gonbidatu nahi dituzte egitasmo berri honetan parte hartzera.



Gazte taldeek eta familiek *Inahaldunak* egitasmoan parte hartu ahalko dute. Esate baterako, mozzorro lehiaketa izango da. TXINTXARRI

Mondragon
Unibertsitatea

GURE
IKASLEEN
AHOTAN

“Ikasitakoa modu errealean aplikatzeak eredu dualaren bidez motibatzen zaitu”

Eider Manso Garmendia 22 urteko lasartearra Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (myGADE) graduko 4. maila ikasten ari da Bidasoako campusean, Irunen.



Zergatik aukeratu zenuen myGADE gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Txikitatik, enpresa mundua ezagutu dut gurasoengandik eta, horregatik, mundu hau betidanik interesatu zait. Eta Mondragon Unibertsitatea, familiarra, hurbila eta ospetsua delako aukeratu nuen.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Oso ona. Bertan asko ikasi dut, lagun asko egin ditut eta gainera ikasleen elkarteetan, Mugi Hadin, egoteko aukera izan dut. Bertan, ikasleentzako gauza desberdinak antolatzen genituen, unibertsitateari beste giro bat emanez.

Nola definituko zenuke Enpresagintzan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Teorikoa eta praktikoa. Alde batetik, teorikoaren baruan, lan-talde asko eduki ditugu, enpresa desberdinen kasu praktikoa lantzeko. Beste aldetik, praktikak egiteko aukera izan dut enpresa batean.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Alde batetik, unibertsitate txikia denez, bulegoan lan egiten dutenekin eta irakasleekin gertutasun handia duzu. Edozer gauzarako lagundu egiten dizute. Beste alde batetik, ikasle batzuen artean eta

irakasle batzuen laguntzaz, ikasle elkarte bat sortu zela, Mugi Hadi izenekoa. Bertan ikasleei zuzendutako gauza asko antolatzen genituen. Horrek nire graduari beste alde praktikoa eman dio.

Nire aldetik, unibertsitateko aparkalekua hobetuko nuke eta enpresa kooperatibetara bisita gehiago antolatuko nituzke.

Lanean ari zara ikasten duzuen bitartean, dual eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun?

Orain, goizetan Oninart enpresan ari naiz Gradu Amaierako Lana egiten eta, arratsaldetan, Ferdoux Estructurasen. Oninarten ekitaldiak antolatzen ari naiz eta Ferdoux Estructurasen, aldiz, administrazio lanak egiten ditut.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Urtean zehar teorikoki ikasten duzuna, gero enpresa batean praktikatu dezakezu modu errealean. Horrek motibatzen zaitu, azkenean irteeraren bat ikusten diozulako teorikoki ikasten ari zarenari.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Ba, lehenik eta behin, enpresa batean lan egin departamentu desberdinak ezagutzeko eta horrela non espezializatu nahi dudan ikusiko dut. Gero, masterra egitea gustatuko litzaidake.

PERTSONAIAK, BANAN-BANAN

Gutxi falta da. Euskal Inauteriak ate joka daude. Orain bi urte Lasarte-Oriako hainbat eragile batu ziren, ospakizunari beste ikuspegi bat eman amoz. Lan askoren ondoren, ideia batzuk ordenatu eta pertsonaia batzuk azaleratu dituzte. Oraingo erronka dute islatutako istorioa ezagutaraztea, herritarrek barneratu dezaten zergatik diren modu horretan Lasarte-Oriako inauteriak.

Mitoak eta erritoak nahasten dira inauterien antzezlanetan. Istorioa ez da beti agerikoa, sinbolismoak indar handia duelako. Mitoa errealtatearen azalpen ez arrazionala ematen saiatzen den alegiazko narrazioa da. Eta erritua, aldiz, mitoaren irudikatze fisikoa. Festaren antolatzaileak euskal inauteri tradizionalen mitoetan

murgildu dira, antzinako ospakizun horren esanahi sinbolikoen bila. Agerikoa da inauterien esanahia: izaera garbitzailea du, hau da, gaitz eta kalamitateak uxatzeko erritoak izan daitezke. Izaera hori da, hain zuzen ere, Lasarte-Oria eta Zubietako Euskal Inauterien abiapuntua.

Inauteriak sortu ziren garaian ez zegoen ezagutza zientifikorik, eta, horrenbestez, edozer gauzari heltzen zioten gaitzak saihesteko. Horrela sortu ziren erritu asko eta asko. Lasarte-Orian itunarekin antzeztuko da horietako bat; kaosa eta gaitzak sortu ditzaketen elementuekin itun bat egingo dute herriko ordezkariak, janariaren eta diruaren truke hitzeman dezaten aurrerantzean kalte gehiagorik ez egitea.


Ituna betetzeko, puska bila aterako dira herritarrek. Alegia, janaria eta dirua biltzeko lanean hasiko dira. Inauteri askotan baserri baserri joaten ziren eskean, mozorroturik.

Horrela, otsailaren 3an alkateak bere jantzi dotoreena prestatuko du, eta herriko mugara abiatuko da. Herriko mugan bilkura inportantea du zain. Hitzarmena adostu ezean, kalamidade latzenek astinduko dute herria. Bilkura horren arabera, urte oparoa edo urte gorria izango da.

Jarraian, festan azaltzen diren pertsonaia eta elementuen esanahi sinbolikoen zerrenda eskainiko du TXINTXARRI-k, Euskal Inauterien lantaldearekin bildu ondoren. Horrela, datorren otsailak 3an edonork ulertu ahalko du ikusi eta entzungo duen guztia.



Herria zibilizazio eremu bat da. Gizakien neurriera egindako espazioa, lasai eta seguru bizitzeko eremua. Herriaren barnean kontrola da nagusi, dena da ezaguna eta kontrolagarria; arriskurik ez dago, ezta kaosik ere.




Natura, Izadia

Natura kanpoan dago, kaosa nagusi den eremuan. Berez ez da ez ona ez txarra; akaso krudela, tarteka. Guztia da natura. Naturak dena ematen digun bezala (janaria, ura, lehen gaiak...), dena kendu diezaguke (uholdeak, suteak, izurriteak, hotza, uzta txarra...).



Herri Kanpoaldea

Herritik kanpo ezer ez da erabat segurua. Kanpoan kaosa da nagusi, eta arriskuaren presentzia beti dago. Kanpotik datorren guztia arriskutsua izan daiteke, ezezaguna delako.



Herria eta kanpoaldea banatzen duen lerroa da. Mugatik barrura dena da ezaguna, kontrolatua eta segurua; babestuak sentitzen gara. Mugatik kanpo, berriz, dena da ezezaguna eta arriskutsua; kanpoan kaosa da nagusi, ez gaude babesean. Barrikadek muga hauen indartzea irudikatzen dute. Barrikadak egiteko elementu asko erabiltzen dira, baina beti kanpotik datorrenari eusteko da.

Sentimenduen bidaiak ipuinetan barrena


Asmakizunak, eskulanak, abestia eta poesiak lantzeko!

HH3 eta HH4koentzat

Otsailaren 1ean, osteguna, 17:45etatik 18:45etara
Mirentxueneako hitzaldi aretoan. Doan.

Izen-ematea: aisia@ttakun.eus, 943 37 14 48 edo Ttakunen





Alkatea


Zibilizazioaren maskara litzateke. Askotan korporazio batek lagunduta azaltzen da, eta bertan gremioak, herritar xumeak eta maila altuagoko herritarrak irudikatzen dira, hau da, klase sozialak. Antolakuntza eta ordenaren maskara da.



Hartza


Naturaren maskara da. Ez da ona, ezta gaiztoa ere, baina gizakiak beti kontrolatu nahi izan du ingurua, neurrira moldatu ahal izateko. Horregatik, askotan hartzak kateatuta agertzen dira. Gainera, dantzariak azaldu ohi dira hartzarekin, gizakiak naturarekiko duen kontrola eta nagusitasua irudikatzen.

Bestetik, hartzaren esnatzeak garrantzi handia du. Urtean lehen aldiz ikustea udaberriaren etorreraren seinale izaten da. Naturaren maskara izanik, kondaira askotan azaltzen da, eta pertsonaia askok dute hartzarekin lotura.



Txantxoak

Naturaren alderdi kaotikoaren maskarak dira. Xomorroen traza dute. Izaera eroa dute, intsektu askoren hegaldia bezala. Ugariak dira, *zarrapastroso* itxurakoak eta zikinak. Xomorroak izurriteen, uzten galeraren eta goseteen sorburu izan dira, baita gaixotasun askoren kutsatzaile ere. Xomorroak izan dira gizadiaren buruhausterik handiena. Gaur egun ordea, ez da horrela; bestelako arazoak ditugu, osasun arazoak. Bizi ohitura okerrenetatik sortzen zaizkigu eritasun horiek, baina baita kutsaduragatik eta beste zenbait arrazoigatik ere. Maskara honek malgutasun handia du, izan ere, gaiztoa edo kaltegarria izan daitekeen edozer gauzaren maskara izan daiteke: gerra, kutsadura, ustelkeria, indarkeria matxista...



Kaxkamalo

Txantxoen artean gaiztoena da. Urteko kalamitate guztien atzean bera dago. Azkenean, berak ordaintzen du gertatutako gaitz guztiengatik. Hil egiten da. Baina urtero berpiztu, eta berriz dator bueltan. Inauteri askotan berpizkundea antzezten da, kalamitatea ehuneko ehunetan saihestu ezin daitekeenaren adierazgarri. Akaso, inoiz lortu al daiteke gaitz guztiak bukatzea?

OTEGI

SAGARDOTEGIA

Larunbatean irekitzen dugu!
(Urtarrilak 27)

Egin TXOTX herrian!

Igande gaua eta astelehena itxita
Astelehena zehar afariak erreserbarekin

ERRESERBAK: 943 36 50 29/654 80 61 63 • Solla-Enea Baserría, Zabaleta auzoa 20160 LASARTE-ORIA



David Egizabal, Ttakun Kultur Elkarteko bulegoan. TXINTXARRI

"Ez dugu ezer asmatu, elementuak ordenatu baizik"

DAVID EGIZABAL EUSKAL INAUTERIETAKO LANTALDEKO KIDEA

Antropologia liburuetatik edan, eta Lasarte-Oriako eta Zubietako Euskal Inauteriak moldatu ditu Egizabalek. "Dagoen festari zor zaion balioa eman nahi diogu"

Adrian Garcia

Urte asko dira Euskal Inauteriak antolatzen dituztela Lasarte-Orian. Ttakun Kultur Elkartek 2013. urtetik antolatzen ditu, beste elkarte eta eragile batzuekin elkarlanean. Zubietako Lagunak, Plaza Dantza, Kukuka, Ttirriki Ttarraka eta beste boluntario asko elkartzen dira mahaiaren bueltan urtero-urtero mozarroen inguruan lan egiteko. Horietako bat da David Egizabal (Lasarte-Oria,

1974). Orain bi urte inguru pentsatu zuten ospakizunari "buelta bat" ematea. Antropologia liburuetan murgildu eta Euskal Herriko beste herrietako inauteriak aztertu ondoren, beste itxura

"PEDAGOGIA EGITEA DA GURE ASMOA, HERRITARRENTZAT ERAKARGARRIA EGITEKO"

bat eman diete Euskal Inauteriei. "Maskaradaren sinbolismoan apustua egin dugu".

Zergatik erabaki zenuten Euskal Inauteriak birpentsatzea eta moldatzea?

Azken urteetan indarra galtzen joan ziren Euskal Inauteriak. Ez zen jende asko biltzen; gu kenduta, beste inor gutxi. Gainera, ez genuen asmatzen gazteak erakartzen. Erromeria egiten genuenean ere bakarrik sentitzen ginen. Ez zuen

zentzurik horrela jarraitzeak, eta zerbait egitea erabaki genuen.

Ikusten da Euskal Inauterien atzean badagoela dokumentazio lan handi bat.

Bai. Ni dantzaria naiz, Erketzen urte asko ibilitakoa. Dantza taldean Juan Antonio Urbeltzekin harremana izateko aukera izan nuen. Hori izan zen kontu guztiaren iturburua. Hari entzunda, bere liburu bat hartzera animatu nintzen. Zoragarria da bere lana, balioa ematen die zuk egiten dituzun dantzei. Ez da gauza bera dantzatzea polita iruditzen zaizulako, edo mezu bat helarazten ari zarelako.

Euskal Inauteriei buruzko lanketak Urbeltzen lana du oinarri?

Ia lan guztiak. Liburu horietan asko aipatzen ditu xomorroak eta maskaradak, eta inauterien esanahia azaltzen du. Horretaz gain, badakigu euskal inauteriak beste lekuetan nola ospatzen dituzten, nahiz eta ez dakigun zehatz-mehatz zer esanahi gordetzen duten. Guk alderantzizko bidea egin dugu: badakigu zer kontatu nahi dugun, eta beste lekuetan ikusitako elementuak erabiltzen ditugu. Ez dugu ezer asmatu, elementuak ordenatu baizik.

Euskal inauterien tradizioan begiratu duzue?

Ez dira inauteri tradizionalak, horregatik ez dugu hitz hori erabiltzen. Baina erabiltzen ditugun elementuak azal ditzakegu, eta horiek duten esanahia. Pizgarri moduan erabili nahi dugu hori, jendea erakartzeko.

Zaila eta neketsua izan behar du literatura horretan guztian arakatzea.

Bai, eta pena handia dut, jende gehiagok ez duelako laguntzen. Bide bat hasten zara ikertzen, eta hamaika galdera sortzen zaizkizu. Eta hor ere jorrazteko aukera asko ikusten dituzu, baina denborarik ez duzu denetarako. **Pedagogia egitea da zuen helburua?** Erabat. Azken finean, balioa ematea dagoen festari. Mitoak egiak diren edo ez... Eztabaida antzu horretan ez gara sartuko, batez ere ez dagoelako jakiterik.

"SANTA ANAKO PARODIAREKIN ANTZA HANDIA DU; BIETAN ERRE EGITEN DIRA GAITZAK"

Iturri nagusia Juan Antonio Urbeltz dugu. Horren inguruan ere hitz egin dugu. Saiatu gara beste iturri batzuk ere begiratzen, eta harremanetan jarri gara Euskal Herriko Unibertsitateko antropologo batekin.

Inauterien jatorria ezezaguna da, baina gauza asko jakinak dira. Elijio kristauaren aurrekoa da festa, eta udaberriari ongiatorria egiten dio nolabait.

Errito paganoak dira. Ziurrenik gizaki primitiboak ongiatorria emango zion udaberriari, garai ona zelako. Urbeltzen testuetan ere halaxe sumatzen da. Hartzaren ikuskatzeari buruz hitz egiten du. Eta hartza ikusten badugu, esan nahi du lozorrotik atera dela, eta, hortaz, kobazulotik atera bada, eguraldi ona hasiko da. Dantza askok ere iradokitzen dute nekazaritzan landatzeko garaia iritsi dela. Dena dela, Elizak errito horiek bere egin zituen, bere historia propioa bultzatzeko.

Ze istorio kontatu nahi duzue Lasarte-Orian?

Urtean zehar gaitzak gertatzen dira herrian, baina badakizkigu zeintzuk diren gaizkia sortzen duten elementuak. Kasu honetan, indar asko ematen zaio xomorroi. Orduan, haiekin itun bat sinatzen da, bakean egon gaitzen. Baina pertsonaia batek ez du inoiz ituna errespetatzen, eta gaitzak sortzen jarraitzen du. Kaxkamalo da hori, eta, azkenean, bere gaitz guztiengatik erretzen da. Itunean sartzen da hori.

Nola egiten da istorio horren errepresentazioa?

Lehen puntuan, zubiaren mugan, xomorro guztiak etortzen dira. Sartzen utziko diegu, eta jaten emango diegu. Baina trukean, gaitzak sortzeari utzi behar diote. Bai esango dute, eta festa bat egingo dugu. Baina denok dakigu aurreko urtean gauza txarrak gertatu zirela herrian, eta guztien atzean dagoela Kaxkamalo. Erre ostean, gaitzak amaitzen dira, eta ez dira berriro itzuliko.

Hurrengo urtera arte.

Bai, beti bueltatzen da, berpiztu egiten delako. Iaz ez genuen berpiztu, eta aurtenean ere ez dugu egingo. Baina etorkizunean egin beharko genuke. Jarraipen bat eman behar zaio, ziklikoa baita. **Hartzak garrantzi handia du errepresentazio horretan.**

Hartzak beti izan da naturaren maskara, eta gizakia beti saiatu



Alkatea, Lasarte-Oria eta Zubietaren arteko zubian, iaz, txantxoekin ituna izenpetzen. TXINTXARRI

da natura kontrolatzen. Hartzari dantza eginaraztea eta katetik lotzea da horren adierazgarri. Xomorroen karrozan hartza izango da pertsonaia nagusia. Natura da, ez da ona, ezta txarra ere. Behar dugun guztia ematen digu, baina baita kendu ere, uholde edo beste ezbehar naturalen bidez. Horregatik, hartza erre behar al da? Otsoa edo azeria balitz, ez nuke jakingo zer esan, beste lekuetan erretzen dutelako.

Inauteri askotan dagoen elementua da sua. Lasarte-Oriako inauterietan ere present dago. Zer esan nahi du? Suak garbiketa esan nahi du; gaitz guztiak garbitzen ditu. Kristautasunak ere bere egin zuen elementu hori; Errautsetako asteazkena da horren adibidea, bekatu guztiak erretzeko eguna. Santa Ana parodian ere erabiltzen da

elementu hori: bi gaizkile erretzen dituzte. Toki guztietan esanahi berbera du. Gaitza erretzen du, eta hedatzea galarazten. Ulertu behar dugu antzinako gizakiak ez zuela zientziaren laguntza, eta horrelako sinesmenek indar handia zuten.

Lehen hartza erretzen zenuten Euskal Inauterietan. Zergatik?

Kontzeptuen gatazka bat izan dugu hor. Deigarria iruditu zaigu beti hartza erretzea. Animalia horrek ez du inoiz izan izaera maltzurrik. Azeriak edo otsoak badute kutsu hori, tradizioari begiratuta behintzat. Dirudienez, bere garaian inauteriak antolatzen zutenek nonbait ikusi zuten hartza erretzen zela, eta hori egitea erabaki zuten. Hartzaren inguruan lan asko egin dugu. Egia da toki batzuetan jipoitu

egiten dutela, baina inon ez dute erretzen. Horregatik, iaztik ez da erretzen; Kaxkamalo erretzen da.

Askorentzat hartza erretzea errotutako ohitura izango zen, ezta?

Gazte talde bat badago, eta oso txikitatik eta oso gertutik bizi izan dituzte Euskal Inauteriak. Haien hartza ez erretzea pentsaezina zen. Guk hori onartzen diegu, baina, beste aldetik, ez du zentzu askorik animalia hori erretzeak.

Lasarte-Zubietan itzulia egiten da inauterietan. Ia saihestezina da Ituren-Zubietarekin alderatzea, herri baten izenean ere bat egiten dute eta. Zer antzekotasun dute bi inauteriek?

Bi herri lotzea polita iruditu zitzaigun, eta hori da zerikusia bakarra. Baina alderaketa hori da, hain zuzen ere, nahi ez duguna. Ez dugu nahi inork

pentsatzea kopia bat denik. Ez du inolako zerikusirik Ituren-Zubietarekin.

Kasu honetan, Lasarte da toki segurua, eta Zubietan kaosa da. Zubietarrak ados al daude ikuspegi horrekin?

Horregatik planteatzen da urtero rola txandakatzea. Planteamendu horrekin, halere, arazo bat dugu. Txantxoa hemen errotutako pertsonaia da, eta jende asko mozorrotzen da horretaz. Izugarri politikak dira asko, baina haien izaeraren kontrakoa da; xomorroak dira, zikinak, lurretik haziak. Logikoa litzateke txantxo guztiak Zubietatik etortzea, eta Lasarten ez egotea. Baina hau guztia ezin dugu bat-batean ezarri. Bi urte igaro dira, hirugarrenean nahiko argi geratuko da kontatu nahi dugun istorioa. Txantxoaren auziari buelta bat eman nahi nioke nik.

Zer egin nahiko zenuke?

Txantxoa, berez, edozein gaitz sortzen duen maskara da. Lantzeko pertsonaia da. Gustatuko litzaidake txantxo gutxiago ikustea, eta kuadrilla gehiagok bere maskara ateratzea. Gauza asko izan daitezke; kutsadura, adibidez. Norberak bere erara interpretatu dezake. Gauza politikak egin daitezke. Halere, zaila da marra bat ezartzea. Izan ere, mugatu behar al dira inauteriak, berez arauaren haustura direnean? Hor dago koska.

Hortaz, hurrengo urtean Lasarte-Oriatik Zubietara joango zarete?

Asmoa beti dago, baina arazoa beste bat da; festa nagusia Zubietan egiten bada, normala denez, Lasarte-Oriako Udalak nekez emango ditu diru laguntzak. Arazo administratibo eta ekonomikoa da. Zenbat ordaindu behar luke udal batek eta besteak

festa egiteko? Zubietan ere jende gutxiago dago, eta lan egiteko gaitasuna txikiagoa da. Arazoa praktikoa da; gu gustura joango ginatete Zubietara. Baina inporta duena ez da zer herri den, baizik eta herriaren kontzeptua. Errito eta mitoetan kontzeptuak du indarra, ez horrenbeste formak. Betiere, esanahia mantentzen bada. Arazoa da esentzia hori ez denean kontutan hartzen, eta beste gauza oso desberdin bat egiten hasten zarenean. Arriskua hor dago, dena desitxuratzean. Horretaz jakitun gara, eta poliki-poliki joatea erabaki dugu.

Nondik hartu dituzte pertsonaiak?

Inauterietako pertsonaiak dira. Maskaradaren pertsonaiekin dute antza izugarria. Hartza, adibidez, mitologian azaltzen da, eta baita Basajauna, Tartalo eta hartzarekin zerikusia izan dezaketenean beste pertsonaiak ere.

Moldatu egin al dituzte pertsonaiak herriko testuingurura?

Ez bereziki. Kontu handia izan dugu, zeren Santa Anako parodiakoen antza hartzen dute. Ezin du bata bestearen antza, eta saiatu gara bien artean distantzia jartzen. Alde horretatik, zertxobait moldatu ditugu pertsonaiak. Adibidez, mikeloteei izena aldatu eta aguazil bezala jarri ditugu, eta itxura goitik behera aldatu diegu. Bi ekitaldien arteko antza agerikoa da: gaitzak erre egiten dira. Noski, honek inauterien kutsua du. Mozorroak daude, eta xomorroak sartzen dira tartean. Baina, ziurrenik, funtsa berbera da. Santa Anako antzerkia da, eta agerikoa da; indar sinboliko gutxiago du. Inauterietan pertsonaiak oso arraroak dira, maskarak daude, eta esanahia gordeago dago.



SANTA TERESA IKASTETXEA

0-18 URTE BITARTEKO HEZIKETA

Tel. 943 21 17 64

www.donostia.teresiareskola.com

secretaria@donostia.teresiareskola.com

Etorkizuna amestuz!



*Zator gu ezagutzera!
Ateak beti zabalik!*

**Matrikula epea
zabalik:**

**urtarrilaren 29tik
otsailaren 9ra**



Beñat Lopetegui, Txus Alonso, Aratz Irigarai eta Karlos Altuna, txapelketaren aurkezpenean, kiroldegian. TXINTXARRI

Larunbatean hasiko da areto futbol txapelketa

35. edizioa izango da aurtengoa, eta zenbait berrikuntza izango ditu; Lasarte-Oriako Udalak antolatuko du aurtengo lehiaketa, eta bederatzi taldek parte hartuko dute. Horrez gain, eskuko telefonoaren eta web atari baten bidez jarraitu ahal izango da txapelketa

Txintxarri

Lasarte-Oriako areto futbol txapelketa 35. aldiz egingo dute aurtun, lehen aldiz udalak antolatuta. Txapelketa sortu zenetik Ostadar SKTk izan du

antolakuntzaren ardura, baina iragan urtean kirol elkartearen areto futboleko modalitatea desagertzearekin batera, txapelketa antolatzea baztertu dute.

Gabezia horri irtenbide bat emateko sortu da Eguzki Aretoko Futbol taldea. Udalak hari egin dio eskaintza aurtengo txapelketa antolatzeko, baina ezinezko ikusi du taldeak, eta, ondorioz, Gazteria

sailak berak antolatu du lehiaketa. "Areto futbola oso errotuta dago Lasarte-Orian, eta beharrezko ikusten genuen txapelketari eustea", azaldu du Txus Alonso Gazteria saileko zinegotziak.

Horrela, Sportmadness Gipuzkoa enpresa kontratatzea erabaki dute, administrazio eta antolaketa lanetarako. Udaletik jakitera eman duten moduan, 6.000 euroko kostua izango du kontratazioak.

Bederatzi talderen arteko lehi

Gizonezkoen bederatzi taldek eman dute izena txapelketarako. Hauek dira haien izenak: Irigoien Erretegia, Insausti-Kattagorri, Avenida Taberna, Txoko Taberna-Autocares Luis Car, Viña del Mar, Trumoi Taberna, Patricio Cocktail Bar, Izenik Gabe eta Sin Patrocinador. Emakumezkoen txapelketa antolatzeko asmoa ere izan dute udaleko ordezkariak, baina ez du talde bakar batek ere izena eman.

Urtarrilaren 27an hasi, eta ekainaren 23an amaituko da txapelketa. Hasierako fasea Michelingo kirolgunean jokatu da, eta ligaren formatua izango du; joan-etorriko partidak izango dira. Guztira hemezortzi jardunaldi jokatu dituzte. Partidak larunbatetan izango dira.

Bigarren fasea Maialen Chourraut udal kiroldegian jokatu dute, eta kanporaketen bidez izango da. Lehen faseko lehenbiziko lau taldeek jokatu

dituzte finalerdiak, eta beste bost taldeek kontsolazioako kanporaketa bat egingo dute.

Mugikorrerako aplikazioa

Aurtengo edizioaren beste berrikuntza bat da txapelketa jarraitzeko sakelakorako egindako aplikazioa. Horrela eman dute jakitera Aratz Irigarai eta Beñat Lopetegui Sportmadneseko kideek: "Leverade izeneko aplikazio bat dugu, eta horren bitartez, online jarraipena egin ahal izango da, uneoro". Bertatik kudeatuko da txapelketa, eta bertatik jaso ahal izango da informazio guztia; parte hartzaileen fitxak, epaileen aktak, minutuz-minutuko datuen zuzeneko emankizuna, emaitzak eta sailkapena, besteak beste. Horrekin batera, <https://leverade.com/en/tourname/539668/calendar/1327088> web ataria ere eskuragarri jarri dute.

Larunbateko partidak

- **09:30** Asador Irigoien - Insausti Kattagorri.
- **10:30** Avenida Taberna - Izen Gabe.
- **11:30** Sin Patrocinador - Viña del Mar.
- **12:30** Txoko Taberna Autocares Luis Car - Trumoi Taberna.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
LURRALDE MAILA IGOERA FASEA
Ostadar SKT - Lagun Onak Igandea. 11:15. Michelinen.
ERREGIONAL PREFERENTEA
Ostadar SKT - Mariño CD Larunbata. 17:15. Michelinen.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Elgoibar CD - Ostadar SKT Igandea. 12:30. Elgoibarren.
JUBENILEN LEHENENGO MAILA IGOERA FASEA
Ostadar SKT - Ekintza KE A Larunbata. 15:30. Michelinen.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Añorga KKE Larunbata. 13:00. Michelinen.
KADETEEN IGOERA FASEA
Arrasate CD A - Ostadar SKT A Larunbata. 11:30. Arrasaten.

ARETO-FUTBOLA
ESTATUKO HIRUGARREN MAILA Eguzki Aretoko Futbola - Soloarte Larunbata. 16:00. Kiroldegian.
GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA
Anoeta FT - Isu Leihok Eguzki Larunbata. 17:15. Anoetan.
GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA
Cecilia Frutadenda Eguzki - Ostiko Sindikato Taberna Ostirala. 20:50. Kiroldegian.
JUBENILAK
Bar Lasarte - Summa Aldapeta Igandea. 11:15. Kiroldegian.
KADETEEN GIPUZKOAKO LIGA
Balerdi Harategia Eguzki - Mondrate CD Igandea. 10:00. Donostian.
SASKIBALOA
SENIOR LEHENENGO MAILA
Ostadar SKT - Cafes Aitona Askatuak Larunbata. 18:00. Kiroldegian.
PARTIZIPAZIO JUNIORRAK
Ostadar SKT - Cafes Aitona Askatuak Larunbata. 20:00. Kiroldegian.

PARTIZIPAZIO KADETEAK
Ostadar SKT - Easo 02-03 Jesuitak Larunbata. 09:30. Kiroldegian.
INFANTIL HANDIAK PARTIZIPAZIOA
Ostadar SKT - Easo 04 Loyola Igandea. 09:30. Kiroldegian.
INFANTIL TXIKI PARTIZIPAZIOA
Ostadar SKT - Aloña Mendi KE Igandea. 09:30. Kiroldegian.
PILOTA
ESKUZ BINAKA UDABERRIKO TXAPELKETA
Intza 1 - Inburre 2 Ostirala. 19:30. Michelin pilotalekuan.
GIPUZKOAKO TXAPELKETA TRINKETEAK
Oiarpe 2 - Intza Larunbata. 15:00. Iruran.
INFANTILAK BIGARREN MAILA
Intza 1 - Hernani 3 Ostirala. 19:30. Michelinen.
Intza 2 - Eple 2 Larunbata. 16:00. Michelinen.

ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Babyauto Zarautz - Uribealde RKE Larunbata. 16:00. Zarautzen.
14 URTEZ AZPIKOA
Txingudi RT - Babyauto Zarautz Beltzak RT Larunbata. 11:00. Irunen.
JUDO
EUSKADIKO JUNIOR TXAPELKETA
Eneko Eizagirrek eta Haritz Urdangarinek Euskadiko Junior Txapelketa jokatu dute. Igandea. 10:00. Hernanin.
TXIRRINDULARITZA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Pistako Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute. Larunbata. 10:00. Donostiako Belodromoan.
IGERIKETA
LUZERA HANDIKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA
Infantil, junior eta absolutu mailako Luzera Handiko Euskal Herriko Txapelketa.

Larunbata. 10:00. Kiroldegian.
NEGUKO LIGA
Infantilak, juniorrak eta absolutuak Neguko Ligaren 4. jardunaldia jokatu dute. Larunbata. 16:00. Hernanin.
ATLETISMOA
ALEBINA ETA INFANTILAK
Gipuzkoako konbinatuen txapelketa. Larunbata. 10:00. Donostiako Belodromoan.
DONOSTIAKO KROSA
Donostiako Nazioarteko Krosa jokatu dute. 10:00etatik aurrera azpiko kategorien lasterketak izango dira. 12:30ean izango da nazioarteko lehen lasterketa. Igandea. 10:00. Hipodromoan, Donostian.
LASTERKETA HERRIKOIA
Herrikoia Krosera proban parte hartuko dute 22 herritarrek. Igandea. 10:30. Donostian.

Zudaire, berriro ere Espainiako txapeldun

Markak ondu eta infantil mailako Espainiako txapelketa eskuratu du. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak Kirolari promesa izendatu du Zudaire. Buruntzaldea IKTKo alebin, benjamin eta aurrebenjamin igerilariak ere fin ibili dira liga jardunaldietan.

Txintxarri

Nahia Zudaire gaztea Valentzian izan da asteburuan, Gazteen mailako Espainiako txapelketan lehian. Eta ez du hutsik egin: infantil mailako Espainiako txapeldun titulua eskuratu du, beste behin. Gainera, bere markak ondu ditu hiru probatan.

Zudairek lau probatan parte hartu du, eta horietan lortutako emaitzek eman dizkiote Espainiako txapeldun izateko puntuak; bi lehen postu eta bi bigarren eskuratu ditu.

Larunbatean fin ibili zen Zudaire. 50 metro tximeletan 38,24 egin du, eta 100 metro libreetan, 01:15,79. Bi probatan lehen postua erdietsi du gazteak, eta, gainera, bere marka hobetu du.

Igandean ere ederki egin zuen igerian. 100 metro tximeleta proban 1:31,62 eginda, bere aurreko marka hobetzea lortu du. 50 metro libre proban, berri, bere marka onenetik bost ehunetara bakarrik geratu da (36,07).



Zudaire, podiumean. BURUNTZALDEA IKT

Honez gain, Zudairek pozik egoteko beste arrazoi bat ere badu. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak Kirolari promesa izendatu du kirol egokitu mailan.

Ez da herritar bakarra izan; Enara Fernandez eskiatzaileak ere jaso du izendapena.

Honen bitartez, haien kirolean trebatzen jarraitzeko diru laguntza jasoko dute bi kirolari gazteek.

Nahiaz gain, larunbatean Tolosan lehiatu zuten ere alebinek, benjaminen eta aurrebenjaminen.

Alebinen Ligako 4. jardunaldian 200 metro bular proba eta 100 metro tximeleta proba egin dute, eta igerilari gazteak lehen postuetan izan dira. 4x100 metro bizkar estiloko erreleboko proba ere izan da. Neskek bigarren amaitu dute, eta mutilek, berriz, hirugarren.

Aurrebenjamin eta benjaminen Test/Ligaren bigarren saioa izan dute. "Guztiak bikain aritu dira, probak benetan txukun burutuz", esan du Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Bestalde, larunbatean, 10:00etatik aurrera infantil, junior eta absolutu mailako Luzera Handiko Euskadiko txapelketa jokatu da Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan. Buruntzaldea IKTKo Leire Martinek, Lander Sorozabalek eta Iñigo Ibarburuk hartuko dute parte.



BELTZAK

Beltzakeko saskiak badu jabea

Beltzak errugbi eskolak, urtero legez, goraino betetako Gabonetako saskia zozketatu du. Oihana Beltran herritarrari tokatu zaio aurtengoa. Iloba Landerrek taldean jokatzeko du, eta hark saldu zizkion zenbait errifa. Horien artean zegoen zenbaki sariduna; pozarren jaso zuen otarra Beltranek, iloba ere bertan zela.

Ostadar Ipar martxa taldeak Hendaian ibilaldia egingo du

Eguberrietan pilak kargatu eta gero, Ostadar Ipar Martxako kideak prest daude berriro ere irteerak egiten hasteko. Igande honetan Hendaia joango dira.

Aurreko urteetan ere joan izan dira, eta asko gustatzen zaien tokia denez, errepikatzea erabaki dute.

Lasarte-Oriako tren geltokian geratu da taldea, 08:20ean.

Hendaiaraino iritsi eta hamabi kilometroko ibilbidea egingo dute; gutxi gorabehera, hiru orduz ariko dira makilekin.

2018ko lehenengo ibilaldia izango da hau. Beste lau dituzte aurrekusiak: otsailean, Zubieta-Txokoalde ibilbidea egingo dute; martxoan, Lasarte-Oriatik Donostiako Kursaalera egingo dute bidea; apirilean, Orio eta Zarautz arteko mendi bideetatik ibiliko dira; eta azkenik, maiatzean, Lasarte-Oriako mugak ibilbidea egingo dute.

Udarregi
IKASTOLA
50 urteko esperientzia

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)
Urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra (biak barne)

Ate irekiak
Urtarrilak 27, 10:30ean jangelan.



943 361 216
Gernika ibilbidea. USURBIL
www.udarregi.eus

Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua. Konfiantzaren Pedagogia egitasmo pedagogikoa garatzen dugu 3-6 urteko haurren getetan.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- **KiVa Ikastola gara:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean dugu 2017ko urtarriletik
- Irakaskuntza Eleanitza: D eredu; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera LH 2. mailatik aurrera eta frantsesa DBHn hautazko irakasgai moduan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Jangela: Bertan sukaldatutako menuak (adin guztietarako).
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza, xake eta robotika.

Epe luzeko begirada, kirolariak zaintzeko

Amaia Andresek zuzentzen du LOKEko atletismoko atala. Ongi ezagutzen du eliteko kirola, eta arreta berezia jartzen dio harrobiari: "Hezkuntzaren atal bat da kirola, eta atletismoaren balioak erakustea dagokigu guri". Igandean krosean arituko dira haurrak

Adrian Garcia

Neguko arratsalde hotza da. Euria ari du, eta Michelin kirolgureko atletismoko zonaldea bustia dago. Baina hori ez da aitzakia entrenamenduari muzin egiteko. Amaia Andres eta Oscar Goikoetxea LOKE atletismoko entrenatzaileek gaztetxoan ariketak zuzentzen dituzte. Pisu jaurtiketa, lasterketa motzak, jauziak... Denetatik egiten dute haurrek. "Atletismoa ez da bakarrik korri egitea. Kirol asko dira bakar baten barruan. Neska-mutil guztiek jakin behar dute hesiak gainditzen, luzera jauziak egiten...", azaldu du Andresek. Asteburu erakargarria dute aurretik LOKEko atletek. Larunbatean Konbinatuaren Gipuzkoako Txapelketa dute, eta, igandean, berriz, Nazioarteko Krosean aterako dira. "Ez dugu krosa entrenatzen, baina herriko lasterketa denez, tradizioz egiten dugu urtero". 10:00etan hasiko da haien lasterketa.

LOKEko atletismoko adarra osatzen dute 80 bat pertsonak. Gehienak gaztetxoak dira. "Piramide moduko bat da.



Amaia Andres, hau bati argibideak ematen, orain bi urteko saio batean. TXINTXARRI

Benjamin eta infantil mailan daude gehienak, eta gero, federatu ahala, gutxitzen doa kopurua. Baina, oro har, atletismoan gertatzen da hori, ez bakarrik hemen".

Eskarmentu handiko entrenatzailea da Andres, goi mailako atleta izandakoa; beasaingarria 1992ko Bartzelonako Olinpiar Jokoetan

lehiatu zuen. Egun Gipuzkoako Atletismo Federazioko presidentea da. Horregatik, ondo baino hobeto daki harrobia zaindu behar dela. "Haurrek atletismoa ezagutu behar dute, jokoen bidez. Modalitate asko daude, eta arauak barneratu behar dituzte pixkanaka-pixkanaka". "Ezkerrarekin zein eskuinarekin jaurtitzeko ikasi behar dute, jauzi

baliogabe bat noiz den jakin, alor teknikoak barneratu... Txikienek apenas egiten dute korri, egun osoan nahikoa egiten dute eta". Gainera, lasterka ongi egiten ikasi beharreko kontua da. "Behar bezala egiten baduzu korri, eraginkorragoa izango zara, azkarragoa. Eta lesioak saihestuko dituzu".

Adin tarte horretan lehia bigarren maila batean uzten dute. "Guretzat Eskola Kirola gaztetxoaren hezkuntzaren beste atal bat da. Modu global batean hezi behar ditugu, eta guri dagokiguna da kirolaren barruan atletismoaren baloreak erakustea: errespetua, sakrifizioa, adiskidetasuna... Eta noski, ongi pasa dezatela".

Geroago hasten dira modalitatea aukeratzen, 14 edo 15 urterekin. "Zer trebezia erakusten dituzten arabera, proba batera edo bestera bideratzen ditugu. Gaitasun aerobikoa badute, arnas luzeko probetara; abilak badira, hesiak saltatzera; gorpuzkeraren arabera ere hobeak izan daitezke proba batzuetan...".

Atletismoaren erroetara

Michelinen atletismorako ezarritako gunean entrenatzen dute. Eskerrak ematen dizkio Andresek multinazionalari, instalazioak udalerraren esku uzteagatik. Halere, bertaratzen den edonork ikus dezake ez daudela guztiz egokituak; pista homologaturik ez du, 110 metroko zuzenki bat besterik ez. Jaurtiketak egiteko gunea estalita dago, baina sare bat du. "Soilik

teknika landu dezakegu, ezin dira jaurtiketak neurtu". Pertika eta altura jauzia egiteko tokia badute. Eguraldi oso txarra egiten duenean frontoian sartu behar dira. Halere, "oso harro" dago Andres, baldintza horietan Espainiako txapelkunak atera direlako. "Nolabait atletismoaren erroetara itzuli gara".

Eskolartekoez ez dituzte serie luzeak egiten, baina federatuek ez dute horretarako aukerarik Michelinen. Ibaiaz bestalderako zuzenki, Zubietako bidean, egiten dituzte. "Neurtua ditugu farola batetik bestera dagoen distantzia. Afrikan bezalaxe, guk ere gure baliabideak ditugu. 17 urte daramatzagu hemen Oscarrek eta biok, eta gauzak egin daitezke".

Atletismoko denboraldia bi zatitan banatzen da. Estalitako pista eta krosekoko garaia izaten da udazken eta negu partean. "Normalean eskolartekoekin Donostiako belodromora joaten gara lehiatzera". Martxoaz geroztik aire libreko txapelketak hasten dira. "Donostialdetik kanpo mugitzen gara orduan gaztetxoekin". Federatuek kasik urte osoan lehiatzen dute, abuztura arte.

Eskola Kiroleko garaia bukatzean hasten dute benetako lehia. Kronometroak eskuetan, atletak urtetik urtera markak hobetzea bilatzen du Andresek. Baina eliteko kirola gertutik ezagutzen du, eta badaki zuhur jokatu behar duela. "Ez ditugu erre behar. Nik ez du Espainiako txapelkun nahi 15 urterekin. Epe luzerako prozesu bat da".

Goi mailako atletak, hipodromoan

Txapelkun olinpiar bat. Munduko txapelkun bat. Eta Europako txapelketetan dominak lortutako atleta ugari. Horiek denek topo egingo dute hipodromoan igande honetan, 63. Nazioarteko Krosean. Behinola eduki zuen mailatik urrun dago lasterketa, baina aurreko arratsalde nabarmena egin du, parte hartzea asko hobetu baita. "63 kros dira dagoeneko. Azkar esaten da. Erreferentzia bat da Donostiako Nazioarteko Krosa", esan du Donostiako Kirol zinegotziak, Martin Ibbek, kirol probaren aurkezpenean. Amaia Andres LOKEko entrenatzailea eta Gipuzkoako Federazioko presidentea ere present egon da ekitaldian.

Izen handi horien artean bada narbarmentzeko bat: Ruth Jebet. Rioko Olinpiar Jokoetan 3.000 metro oztupoetan urrezko domina lortu zuen, eta munduko marka du modalitate horretan. Lehia bizia izango du, Daisy Jepkemei eta Norah Tanui kenyar gazteek ezustekoa eman nahiko baitiote.

Gizonen artean, berriz, Aweke Ayalew etiopiar jatorriko korrikalaria da faboritua. 2017an kros oso garrantzitsuak irabazi zituen; esate baterako, Espainiako Italicakoa eta Atapuercakoa. Elgoibarko Mugerza krosean ere irabaztekoan egon zen iaz; bigarren egin zuen. Kemboi Arikane, Europako txapelketa hirutan irabazitakoak, egingo dio aurre. Horrez gainera, Yasin Haji




luzeko krosekoko gizonen artean. TXINTXARRI

munduko junior txapelketa izango da lehia.

Sarrera alde aurretik erositzen gero, sei euro balio ditu. Interneten daude salgai.

Leihatilan bertan erositzen gero, hamar euro balio ditu. 12:30ean hasiko da nazioarteko lasterketa. Emakumeek lehiatu dute lehenengo.

ZORION AGURRAK



Conchi
Zorionak Conchi!
Familiaren partez, muxu
handi bat.



Irati
Oso ondo pasa zure
egunean 10 muxu
pottolok zure familiaren
partetik

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurra eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 26 DE MIGUEL
Larunbata, 27 ORUE
Igandea, 28 ORUE
Astelehena, 29 LASA
Astearte, 30 GIL
Asteazkena, 31 ACHA-ORBEA
Osteguna, 01 URBISTONDO

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUNJA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Santa Ageda erronda prestatzeko entsegua

Urtero legez Santa Ageda bezperan herritik kantatzen irtengo da Erketz EDT. Eztarriak gozotzen joateko asmoarekin otsailaren 1ean 20:00etan Sasoeta auzoan kokatuta dagoen KZgune Zaharrean entsaio bat egingo dute.

Intza elkartearen Batzar Orokorra

Intza elkarteak jakinarazten du, otsailaren 4an, igandean ohiko eta ez-ohiko batzar orokorrak antolatu dituela. Lehen deialdia 09:00etan da eta bigarrena berriz, 09:30ean.

Elkarteak bazkide guztiei deia egiten die batzarrerera hurbiltzeko.

Mus txapelketa

Euskal Herriko X. Mus Txapelketako Lasarte-Oriako fasea jokatu da urtarrilaren 26an, Xirimiri elkartearen. Egun horretan bertan, elkartera izen ematera gerturatzen direnek momentuan jokatu dute kanporaketa, eta bertan irabazle suertatzen direnek Gipuzkoako txapelketarako pasea lortuko dute. 20 euroko kostua (bikoteko) izango du izen emateak.

Biyak Bat elkartearen batzar orokorra

Biyak Bat elkarteak jakinarazten du, urtarrilaren 27an, larunbata 2017 urteari dagokion batzar orokorra egingo duela. Lehen deialdia

17:30ean da eta bigarrena berriz, 18:00etan.

Elkarteak bazkideei deia egiten die batzarrerera hurbiltzeko elkartearen egoeren berri izateko.

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, urtarrilaren 29an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era.

Sasoeta Sasoian elkartearen batzar orokorra

Urtarrilaren 30ean, 18:30ean eta 19:00etan, kultur etxean burutuko den batzarrerera joateko gonbita luzatzen die bazkide eta auzotarrei.

SUDOKUA

	2		8		6	1	
8		6		1		2	4
1		9		2	6		3
	1	8				6	5
			5	6		4	
5	6			3		9	
	8	1	3	4		2	
3		5	6	8	2	1	7
6		2			9		8



ELECTRICIDAD
ARREGUI



600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Zatoz eta ezagutu haurrentzako lanpara eskaintza zabalena!



"Akuario" zutikako lanpara



Mesanotxerako lanparak



Idazmahairako lanparak



"Laba" lanparak

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALMENTA
Garajea salgai Andatza plazan. 23,18 m². 635 702 404.

ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen dut Atsobakarren, Golf plazan, Garaikoetxea eskolaren parean.

Autoarentzat edo motorarentzat egokia. Handia eta sarbide onarekin. 659 02 19 45

LANA

ESKAINTZA
Barazar tabernak zerbitzaria behar du asteburuetarako.

Euskalduna bada, hobeto. Telefonoa: 678 188 818.

ESKAERA

Adineko pertsonak zaintzen esperientzia duen emakumea interna gisa lana egiteko prest. 631 464 176.
Adineko pertsonak zaintzen esperientzia

duen emakumea interna gisa lana egiteko prest. 642 595 146.

Garbiketa lanak edota adineko pertsonen zainduko nituzke. Astelehenetik ostiralera eta asteburuetan lan egiteko prest. 690 146 067.

Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo pertsona edadetuak zaintzeko. Egun osoz edo orduka. Telefonoa: 695 652 161.

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO:
Txintxarri erredakzioan
943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan


JAIOTAKOAK

Julia Sagardia Rebollo. Urtarrilaren 18an.
Izei Pozo Diaz de Tuesta. Urtarrilaren 14an.

HILDAKOAK

Josefa Montesinos Bouza. Urtarrilaren 20an.
Jose Mari Calvo Gomez. Urtarrilaren 20an.
Francisco Jiménez Felipe. Urtarrilaren 7an.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzaileak

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Nerea Elizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Aranbxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,
Jexux Artebe, Maider Galardi,
Mikel Yarza, Nerea Segura eta
Aizpea Amas.

Informatikoa

Asier Aztiria.

Administraria

Nerea Garziarena.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 26

DONOSTIA Hitzaldia

Euskal literaturaren mitoak (eraitsiz) hitzaldia eskainiko du Iban Zalduek. (Euskal) literaturaren alde (eta kontra) entsegua oinarri harturik, bere gogoetak heleraziko ditu. Egia kultur etxea, 19:00etan

DONOSTIA Antzerkia

Ergela lana aurkeztuko du Txalo produkzioak ostiralean eta larunbatean. Joseba Apaolaza eta Sara Cozar dira Jordi Casanovasen komedia honen protagonista. Sarrera, 10-19 euro. Antzoki Zaharra, 20:00etan

ANDOAIN Kontzertua

Elliot Murphyk *Prodigal son* azken diskako abestiak aurkeztuko ditu, Olivier Duranekin batera. Doinu rockeroak entzuteko aukera aproposa. Sarrera, 15 euro. Bastero kulturgunea, 21:30ean

LARUNBATA 27

LASARTE-ORIA Mendi martxa

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak antolatuta goi-tentsioko linearen aurkako mendi-martxa Azkorterera. Ostein, Lasarte-Oriara ibilbidea egingo eta 13:00etan, ekitaldia izango da. Okendo plaza, 10:00etatik aurrera

LASARTE-ORIA Antzerkia

Marie de Jongh antzerki taldeak bere azken lana aurkeztuko du, *Izar* antzezlan. Maskarak eta keinuak nahasten ditu lanak. Manuel Lekuona, 17:00etan

ANDOAIN Pailazoak

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan *Borobilean* haur-ikuskizuna. Sarrera, 6 euro. Bastero kulturgunea, 16:30ean eta 18:30ean

ASTIGARRAGA Kontzertu didaktikoa

Sugar boskoteak Esther Iñiguezekin batera, Intxaur hauskailuaren ipuina eskainiko dute. Haurrei zuzendua dago, eta zurezko haize instrumentuak ezagutzera emango dituzte. Doakoa. Norberto Amadoz musika eskola, 17:00etan



LASARTE-ORIA Izar antzezlan. Izar pianoa maisutasunez jotzen duen haur prodijioa da. Mundu mailako ospea lortu du. Etxean jaso duen heziketa zorrotzak lagunak izatea galarazi dio. Bapatean ama hilko da, aita shock egoeran gelditzen da eta gure Izar txikiak haurtzarora utzi eta heldutasunerako derrigorrezko bidaia azkarra abiatuko du. Familian ikusteko aproposa. Sarrera, 3,80 euro. Manuel Lekuona, 17:00etan

DONOSTIA Sormen tailerra

Espazioaren barrea erakusketaren harira, Guernica artelanaren eta J.R. Amondarainen obren forma ezberdinekin jolasteko *Gernika dirudi*, Picasso akaso sormen tailerra. 6 eta 12 urte arteko haurrei zuzendua. Prezioa, 5 euro. San Telmo museoa, 17:00etan

DONOSTIA Haur antzerkia

Zirika Zirkusek *Lara Larika* antzerkia eskainiko du. Urte bat eta 5 urte bitarteko haurrei zuzendutako lana. Gonbidapena behar da. Egun berean banatuko dira, 17:00etatik aurrera. Ernest Lluch, 17:30ean

ASTIGARRAGA Antzerkia

ArteDramak *Hozkailua* lana eskainiko du. Ander Lipus eta Patricia Urrutia dira antzezleak, eta Unai Iturriagak idatzi du testua. Umore beltza da nagusi, baina sakontasunarekin. Sarrera helduek, 6 euro; adin txikiek, 3 euro. Kultur etxea, 20:00etan

DONOSTIA Antzerkia

Hika Teatroa taldeak *Txarriboda* lana aurkeztuko du larunbata eta igandean. Sarrera, 10 euro. Gazteszena, 20:00etan

ASTEARTEA 30

LASARTE-ORIA Plaza dantza Euskal Inauteriak konpartsako dantzak

prestatzeko saio berezia egingo da. Sasoeta ikastetxeko gimnasioa, 20:00etan

HERNANI Ipuin kontaketa

Dorleta Kortazarrek bi ipuin kontaketa saio egingo ditu ebeko txikiei zuzendua: 17:30ean, 3-4 urte bitartekoentzat eta 18:00etan, 5-7 urte bitartekoentzat. Biteri kultur etxea, 17:30ean eta 18:00etan

DONOSTIA Ipuin kontaketa

Ipuin kontaketa musikatua egingo du Ana Apikak, Intxuxu Valbuena gitarra jolearen laguntzaz. Bi urte baino gehiagoko haurrei zuzendua. Aiete kultur etxea, 18:00etan

ASTEAZKENA 31

LASARTE-ORIA Plaza dantza

Euskal Inauteriak konpartsako dantzak prestatzeko saio berezia egingo da. Sasoetako ikastetxeko gimnasioa, 20:00etan

HERNANI Tailerra

Zilegi eskolan eskulanak egingo dituzte Itziar Salaberriaren laguntzaz. AEKren lokalean, 09:30ean

OSTEGUNA 1

DONOSTIA Antzerkia

Donostiako Arte Eszenikoen Tailerreko neguko erakustaldia. Gazteszena, 19:00etan

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Wonder wheel Ostirala: 22:00.

El pequeño vampiro Igandea: 17:00.

Perfectos desconocidos Igandea: 19:30.

USURBIL

URBIL

C'est la vie!

Ostirala: 17:00, 19:25, 22:35, 00:55.

Larunbata: 17:00, 19:25, 22:35, 00:55.

Igandea: 17:00, 19:25, 22:35.

El corredor del laberinto: La

cura mortal

Ostirala: 16:25, 18:25, 19:20, 22:15, 00:30. Larunbata: 16:25, 18:25, 19:20, 22:15, 00:30. Igandea: 16:25, 18:25, 19:20, 22:15.

Star Wars: Los últimos Jedi Ostirala: 21:50. Larunbata: 21:50. Igandea: 21:50.

Coco

Ostirala: 17:55. Larunbata: 15:45, 17:55. Igandea: 15:45, 17:55.

El Gran Showman Ostirala: 16:15, 20:25. Larunbata: 16:15, 20:25. Igandea: 16:15, 20:25.

Ferdinand Ostirala: 18:50. Larunbata: 16:30, 18:50. Igandea: 16:30, 18:50.

Insidious: La última llave Ostirala: 15:45, 22:15, 01:00. Larunbata: 22:15, 01:00. Igandea: 22:15.

Jumanji: Bienvenidos a la jungla Ostirala: 20:05, 22:30, 00:55. Larunbata: 20:05, 22:30, 00:55. Igandea: 20:05, 22:30.

Los archivos del pentagono Ostirala: 15:45, 18:05, 21:15, 23:40. Larunbata: 15:45, 18:05.

21:15, 23:40. Igandea: 15:45, 18:05, 21:15.

Tres anuncios en las afueras Ostirala:

16:00, 18:25, 20:15, 22:40.

Larunbata: 16:00, 18:25, 20:15, 22:40, 01:00.

Igandea: 16:00, 18:25, 20:15, 22:40.

Perfectos desconocidos Ostirala: 15:55, 18:05, 20:50, 23:00, 01:00.

Larunbata: 15:55, 18:05, 20:50, 23:00, 01:00.

Igandea: 15:55, 18:05, 20:50, 23:00.

Que baje Dios y lo vea Ostirala: 16:30.



LABURPENA

Wonder wheel

Zuzendaria eta gidoilaria: Woody Allen. **Herr:** AEB (2017).

Argazkia: Vittorio Storaro. **Aktoreak:** Kate Winslet, Justin Timberlake, Juno Temple, James Belushi, Max Casella, Michael Zegarski, Tony Sirico, Marko Caka. **Iraupena:** 101 minutu.

Emozioen gorabeherak

Iragan mendeko 50eko hamarkadan girotu du bere filma, Coney Island uhartean. Mickey Rubin gazteak atrakzio parke batean lan egiten du, baina idazle izan nahi du; Humpty eta Ginni senar-emazteen istorioa kontatuko du gazteak. Ginnik, zerbitzari gisa lan egiten duen aktorea ohia da eta Humpty, berriz, Coney Island uhartean dagoen jolas-parkeko noria ospetsuaren operadorea.

Bikotearen bizia nahasia da. Humpty alkohol arazoak ditu eta horrek krisia sortu du bikotean. Ginnik gainera Mickey gustuko du.

Egun batean, Carolina, Humpty-ren alaba agertzen da. Gangster talde batetik ihesi dabil eta horrek gehiago korapilatzen du istorioa.

Pasio, biolentzia eta traiziozko istorioa aurkezten du Woody Allen zuzendariak bere azken filman.

Aktore ezagunak eta izar gazteak batzen ditu Brooklyneko zuzendariak pelikula honetan. Kate Winslet eta James Belushi dira bikote protagonista; Justin Timberlake Mickey Rubin da eta Humptyren alabaren azalean Juno Temple dago.

Zine zaletuek era askotariko iritziak eman dituzte filmari buruz, baina askok Kate Winsleten lana goraiatzeko dute.

Sasoeta-Zumaburu herri-ikastetxea

Herrikoa, solidarioa eta etorkizunari begiratzen diona



- Euskal kultura eta euskara bultzatzen ditugu, geureak direlako
- Elkarbizitza proiektua: eskolako partaide guztiak elkarrekin joateko
- Agenda 21 proiektua: inguruarekin bat eginez
- Ingelesa: atzerrira begira
- Teknologia berrien erabilera: irratia, aldizkaria, informatika... gure tresnak dira
- Behar berezia duten ikasleentzako: gertuko jarraipena eta aholkulariak
- Liburutegi eta mediateka zerbitzuak
- Eskola ordutik kanpoko jarduerak
- Goiz txoko zerbitzua
- Jangela zerbitzua
- Garraio zerbitzua



MATRIKULAZIO EPEA:
Urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra

BILERA EGUNA:
Urtarrilaren 30ean, 17:00etan Sasoetako liburutegian